

Informazioaren teknologia berriak

Batez besteko desbiderapena, banaketaren balioak batez bestekotik oso hurbil multzokatuta dauden edo, aitzitik, oso bereizita dauden azaltzen duen parametroa da.

Edo beste era batera esanda, antzeko aldagaiei buruzko datuak ematen dituzten banaketa bitan batez besteko desbiderapena batean bestean baino altuagoa bada balioak ez dira hain multzokatuta egongo batezbestekotik.

Balioen banaketa baten batez besteko desbiderapena kalkulatzeko hurrengo urratsak eman behar dira:

- Banaketaren batezbestekoa kalkulatu.
- Balio bakoitzaren desbiderapenak batezbestekoarekiko duen balio absolutua kalkulatu.
- Desbiderapenen balio absolutuek duten batezbesteko aritmetikoa kalkulatu.

Adibidez:

Banaketa hau bada: 5,6,3,5,7,3,5,8,9,10

x	f	fx	[d]	
3	2	6	3,1	6,2
4	0	0	2,1	0
5	3	15	1,1	3,3
6	1	6	0,1	0,1
7	1	7	0,9	0,9
8	1	8	1,9	1,9
9	1	9	2,9	2,9
10	1	10	3,9	3,9
	N=10	61		19,2

$$X_m = 61/10 = 6,1$$

$$\text{Batez besteko desbiderapena} = 19,2 / 10 = 1,92$$

Kalkulu-orrietan "DESVROM" funtzioak datuen banaketa baterako balioa kalkulatu du.

❖ Aztertu arreta handiz taula hau:

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK

Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte bitarteko biztanleak adinaren arabera. Europako herrialdeak. 2003ko 2. hiruhilekoa. (%)

	16-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65-74 urte
Suedia	92	86	76	67	61	20
Islandia	90	84	83	76	52	25
Norvegia	85	79	73	72	44	19
Danimarka	80	77	73	68	47	24
Alemania	72	63	54	42	—	—
Euskal AE	71	49	40	23	12	3
Erresuma Batua	60	61	53	47	30	—
15kideko Europa	59	52	44	35	20	8
Portugal	47	32	20	15	—	—
Eurogunea	—	48	40	29	15	6
Espainia	—	43	31	21	9	3
Italia	41	40	30	21	8	3
Grezia	33	23	16	7	4	1
Irlanda	30	36	29	19	11	3

Iturria: IGIF. Eustat. Eurostat

❖ Hartu taulan agertzen diren banaketetako bi: 25-34 urtekoa eta 35-44 urtekoa. Orain kendu balio-multzo horretatik "15 kideko Europari" eta "Euroguneari" dagozkionak.

❖ Kalkulatu banaketa horren batez besteko balioa eta gero alderatu "15 kideko Europaren" eta "Eurogunearen" balioekin. Zein dira alderaketa horren ondorioak?.....

.....

.....

.....

❖ Kalkulatu banaketa horien batez besteko desbiderapena eta gero alderatu lortzen dituzun datuak. Saia zaitetz datu horiekin ondorioren bat ateratzen, bi banaketa horien ezaugarri ezberdinei dagokienez.....

.....

.....

.....

❖ Orain egizu gauza bera zuk nahi duzun beste adin-tarte batekin.